

ADIERAZLEAK

Iturria: adierazleen datuak Unibertsitate Informazioaren Sistema Integratutik (SIU) lortu dira, “Laneratze-emaitzak: Lanbide” atalari dagozkionak izan ezik, horiek Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eman baititu.

Oharrak: oro har, (–) ikurra agertzen denean haxe esan nahi du:

- SIU datuak: balio sendoa (25 elementu edo gutxiago) bermatzeko biztanleria nahikoa ez izateagatik daturik ez dagoen gelaxketan.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuak: erantzun-kopurua 5etik beherakoa bada, ez da daturik ematen, eta ez da sexuaren arabera bereizten, gizonen edo emakumeen erantzun-kopurua zenbateko horretara iristen ez bada.

Sarrera eta matrikula

Plaza-eskaintza: titulazioko lehen mailan sartzeko unibertsitate-plazen zenbatekoa.

Ikasten hasi berri diren ikasleak: titulazioan lehen aldiz matrikulatzen diren ikasleen kopurua.

Sartzeko gutxieneko nota: titulazioaren lehen mailan notarik baxuenarekin matrikulatzen den ikaslearen batezbesteko nota da; titulazio batean onartzeko gutxieneko nota aurreikusteko baliogarria da, baina erreferentzia gisa soilik, urte batetik bestera aldakuntzak izaten baitira.

Ikasketa-emaitzak

Arrakasta-tasa: ikasturte batean matrikulatzen diren ikasleek gainditutako kreditu-kopuruaren eta ikasturte horretan azterketara aurkeztutako kreditu-kopuru osoaren arteko ehunekoa.

Graduazio-tasa: sarrera-kohorteari dagokionez ikasketak ikasketa-planean aurreikusitako epean edo ikasturte bat beranduago amaitzen dituzten ikasleen ehunekoa.

Uzte-tasa: X ikasturtean U unibertsitateko T tituluan matrikulatutako kohorte bateko ikasleen ehunekoa, titulu horretan graduatu gabe bi ikasturtez jarraian bertan matrikulatu ez direnak.

Lan-munduratzearen emaitzak: Gizarte Segurantza

Afiliazio-tasa: unibertsitateko ikasketak amaitu eta hiru urte ondoren Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden pertsonen eta ikasketa horiek amaitu zituzten pertsona guztien zenbatekoen arteko erlazioa (ehunekotan).

Tituludunen taldea: titulazioa lortu duten pertsonen artean Gizarte Segurantzaren unibertsitateko heziketa-mailarekin lotutako kotizazio-taldeetan (Gizarte Segurantzaren 1. eta 2. kotizazio-taldeak) afiliatutako ehunekoa.

Urteko BKO (batezbesteko kotizazio-oinarria): unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten eta lanaldi osoko kontratuarekin besteren kontura afiliatuta dauden pertsonen gizarte-segurantzako kotizazio-oinarriaren urteko batezbestekoa eta ehunekoa, honako tarte hauen arabera:

1. tartea: 6.000 €-tik 12.000 €-ra
2. tartea: 12.000 €-tik 18.000 €-ra
3. tartea: 18.000 €-tik 24.000 €-ra
4. tartea: 24.000 €-tik 30.000 €-ra
5. tartea: 30.000 €-tik 36.000 €-ra
6. tartea: 36.000 €-tik gora

Adierazle horrek gaur egun (2023ko martxoa) ez du titulazio gehienetarako SIIUk emandako daturik, baina egoera ondoz ondoko eguneratzeetan irauliko dela aurreikusten da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Unibertsitate Ministerioaren artean estatistika-arloko informazioa elkarri trukatzeari buruz 2022an ezarritako hitzarmena dela eta.

Laneratze-emaizak: Lanbide

Enplegu-tasa: promozio jakin bateko unibertsitate-ikasketadunen artean, enplegua dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa.

Ahokatutako enpleguaren %-a: egindako ikasketekin lotutako enplegua dutela adierazi duten promozio jakin bateko pertsonen ehunekoa.